

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Barcina Lehendakariak Foru Komunitatearen egoera ekonomikoaren berri eman du Parlamentuan

Diru-sarreretan izandako murrizketak doikuntzak egitera behartzen ari dela adierazi du

Viernes, 29 de junio de 2012

Nafarroako Lehendakari Yolanda Barcinak Foru Komunitateko kontuen egoeraren berri eman du Nafarroako Parlamentuan, gaur eguerdian. Bere [agerraldian](#), Barcinak aipatu du diru-sarrerak murriztu egin direla, eta horrek "gastuaren murrizketa berrien beharra mahai gainean jarri du defizit publikoko alorrean gure konpromisoak betetzeko".

Lehendakariak zehaztu du 2012rako diru-bilketa likidoaren aurreikuspena 3.011 milioi eurokoa dela; horren aurrean aurrekontuak 3.198 milioi euroko diru-sarrera eta, beraz, gastua aurreikusten du, hau da, % 5,85 gutxiago. Egoera hori, Yolanda Barcinak aipatu duenez, zergen arloan izandako aldaketengatik gertatu da bereziki Aurrekontuen Legea onartu zenetik, bai eta kontsumo pribatua gutxitu delako eta esportazioak gutxitu direlako krisi ekonomikoaren ondorioz.

Nolanahi ere, Barcinak azaldu du Nafarroako egoera ekonomikoa estatuko batez bestekoa baino hobea dela. Aurreikusita dago Foru Komunitateak urtea % -1,2ko hazkunde ekonomikoarekin amaituko duela estatuko batez bestekoaren % -1,7aren aurrean, eta Nafarroako langabezia-tasa estatu osokoa baino zortzi puntu azpitik dagoela (% 16,34 % 24,44ren aurrean). Gogoratu du ere, "bigarren atzeraldi hori izan arren" Nafarroak krisiaren hasieran zegoena baino BPGaren maila handiagoa duela.

Barcina Lehendakariak adierazpen horiek egin ditu Nafarroako Parlamentuko Foru Erregimeneko Batzordean, eta bertan agertu da berak hala eskatuta gobernuko krisiari, arrazoiei eta Foru Komunitateko kontuen egoerari buruzko informazioa emateko.